



641/2019 EBAZPENA, IRAILAREN 23KOA; HORREN BIDEZ AGINTZEN DA OSAKIDETZAREN WEB ORRIAN ARGITARA DAITEZELA 2014KO ALDI BATERAKO KONTRATAZIOKO ZERRENDA EGUNERATUAK, 1. LEHENTASUNEKOAK, LANPOSTU HUTSENA ETA ORDEZKAPENENA (2011 EPE-TIK SORTUTAKOAK, ALDI BATERAKO KONTRATAZIO ZERRENDAK), LANPOSTU FUNTZIONAL HAUETARAKO: ZERBITZU OROKORRETAKO OFIZIAL GIDARIA, GARRAIO SANITARIOAREN OFIZIAL GIDARIA ETA LARRIALDIETAKO IBILGAILUEN OFIZIAL GIDARIA.

Aldi baterako kontratazio-zerrendak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan 2011ko maiatzaren 9ko Erabakiaren arabera arautzen dira (EHAA, 106 zk., 2011ko ekainaren 6koa) –Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren Administrazio Kontseiluak emandako Erabakia–.

Justizia Auzitegi Nagusiaren 382/2017, 451/2017 eta 582/2017 erabaki judizialak betetzearen harira gauzatu diren ekintzak ikusita, Osakidetza web orrian argitaratu dira 2014ko aldi baterako kontratazioko zerrenda eguneratuak; bertan sartuta daude 2011ko EPEan Ofizial Gidaria kategorian parte hartu ondoren esleipendun suertatu ziren baina epaiak betearaztean ondorioz baztertuak izan ziren pertsonak, beren-beregi eman den ezohiko epean aldi baterako kontratazio-zerrendetan berriz aktibatu ondoren.

Hori dela-eta,

EBAZTEN DUT

Lehena.- Agintzea Osakidetza web orrian argitara daitezela 2014ko aldi baterako kontratazioko zerrenda eguneratuak, 1. lehentasunekoak, lanpostu hutsena eta ordezkapenena, lanpostu funtzional hauetarako: Zerbitzu orokorretako ofizial gidaria, Garraio sanitarioaren ofizial gidaria eta Larrialdietako ibilgailuen ofizial gidaria.

Zerrenda horiek 2019ko irailaren 24an sartuko dira indarrean.

Bigarrena.- Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau webgunean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko irailaren 23an.

Osakidetza

María Pilar Uriarte Brizuela
GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDARIA
DIRECTORA DE RECURSOS HUMANOS

Izpta.: María Pilar Uriarte Brizuela
OSAKIDETZAKO GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA

